**ESPARRU-AKORDIOA, EUSKO JAURLARITZAREN, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATE-SISTEMAREN, IKASLAN LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXE PUBLIKOEN ZUZENDARIEN ELKARTEEN ETA HETEL HEZIKETA TEKNIKOKO GIZARTE EKIMENEKO IKASTETXE PRIBATU KONTZERTATUEN ELKARTEAREN ARTEKOA. GAIA: LANBIDEAN TREBAKUNTZA HANDIAGOA LORTZEA, UNIBERTSITATEKO TITULAZIO OFIZIAL BAT LORTU DUTEN EDO 2017/2018 IKASTURTE AKADEMIKOAN GRADUAREN AZKEN IKASTURTEAN MATRIKULATUTA DAUDEN IKASLEAK, ETA LANBIDE HEZIKETAKO TITULU BAT DUTEN IKASLEAK ENPRESETAN PRESTATUZ. HORI GUZTIA HEZKUNTZA-ARLOTIK LAN-ARLORA IGAROTZEKO ETA EKINTZAILE IZATEKO BEKEN BITARTEZ.**

Vitoria-Gasteiz, 2017ko uztailaren 19a.

**BERTARATU DIRA**

Alde batetik, Iñigo Urkullu Renteria jauna txit gorena, Eusko Jaurlaritzako lehendakaria

Bestetik, Miren Nekane Balluerka Lasa andrea, UPV/EHUko errektorea.

Bestetik, José María Guibert Uncín jauna, Deustuko Unibertsitateko errektorea.

Bestetik, Vicente Atxa Uribe jauna, Mondragon Unibertsitateko errektorea.

Bestetik, Pedro Ibáñez Dorado jauna, *IKASLAN Araba* Arabako Lanbide Heziketako Ikastetxe Publikoen Elkarteko lehendakaria.

Bestetik, Agustín Campos Trujillo jauna, *IKASLAN Bizkaia* Bizkaiko Lanbide Heziketako Ikastetxe Publikoen Elkarteko lehendakaria

**ACUERDO MARCO ENTRE EL GOBIERNO VASCO, LAS UNIVERSIDADES DEL SISTEMA UNIVERSITARIO VASCO, LAS ASOCIACIONES DE DIRECTORES DE CENTROS PÚBLICOS DE FORMACIÓN PROFESIONAL IKASLAN Y LA ASOCIACIÓN DE CENTROS PRIVADOS-CONCERTADOS DE FORMACIÓN PROFESIONAL DE INICIATIVA SOCIAL HETEL, PARA LOGRAR UNA MAYOR CAPACITACIÓN PROFESIONAL MEDIANTE FORMACIÓN EN EMPRESAS DEL ALUMNADO QUE HAYA OBTENIDO UNA TITULACIÓN OFICIAL UNIVERSITARIA O ESTÉ MATRICULADO EN EL ÚLTIMO CURSO DE GRADO EN EL CURSO ACADÉMICO 2017/2018 Y ALUMNADO QUE ESTÁ EN POSESIÓN DE UN TITULO DE FORMACIÓN PROFESIONAL, MEDIANTE BECAS DE TRANSICIÓN DEL MUNDO EDUCATIVO AL LABORAL Y DE EMPRENDIMIENTO.**

En Vitoria-Gasteiz, a 19 de julio de 2017

**COMPARECEN**

De una parte, D. Iñigo Urkullu, Renteria Lehendakari del Gobierno Vasco.

De otra, Dña. Miren Nekane Balluerka Lasa, rectora de la UPV/EHU.

De otra, D. José María Guibert Uncín, rector de la Universidad de Deusto.

De otra, D. Vicente Atxa Uribe, rector de Mondragón Unibertsitatea.

De otra, D. Pedro Ibáñez Dorado, Presidente de la Asociación de Centros Públicos de Formación Profesional de Álava, *IKASLAN Araba*.

De otra, D. Agustín Campos Trujillo, Presidente de la Asociación de Centros Públicos de Formación Profesional de Bizkaia, *IKASLAN*

*Bizkaia*.

Bestetik, Iosune Irazabal Ormaechea andrea, *IKASLAN Gipuzkoa* Gipuzkoako Lanbide Heziketako Ikastetxe Publikoen Elkarteko lehendakaria

De otra, D. Dña. Iosune Irazabal Ormaechea, Presidenta de la Asociación de Centros Públicos de Formación Profesional de Gipuzkoa, *IKASLAN Gipuzkoa*.

Besteteik, Julen Elgeta Guenetxea jauna, HETEL Heziketa Teknikoko Gizarte Ekimeneko Ikastetxe Pribatu Kontzertatuen Elkarteko presidentea.

De otra, D. Julen Elgeta Guenetxea, Presidente de la Asociación de Centros Privados - Concertados de Formación Profesional de Iniciativa Social, HETEL.

Parte hartzen duten alde biek elkarri aitortzen diote badutela dokumentu hau sinatzeko behar den legezko gaitasuna, eta honako hau

Las partes intervinientes se reconocen capacidad legal para otorgar el presente documento, y

**AZALDU DUTE**

**EXPONEN**

Azken urteotan, aldaketa teknologiko garrantzitsuak ari dira gertatzen, hala nola, ekoizpen-prozesuan automatizazio handiagoa, antolamendu eta kudeaketa mota berriak, lanbide-alor berrien agerpena eta tekniken eta ekipamenduen eraldaketa bizkorra.

En los últimos años se están produciendo importantes cambios tecnológicos, una mayor automatización de los procesos productivos, nuevos tipos de organización y gestión, la aparición de nuevos campos profesionales y la rápida transformación de las técnicas y los equipos.

Pertsonen gaitasun-maila funtsezko elementua da ekoizpen-sektoreen lehiakortasuna, enplegu-sorrera eta gizarte-kohesioa lortzeko.

El nivel de competencia de las personas es un elemento de capital importancia para conseguir la competitividad de los sectores productivos, la creación de empleo y la cohesión social.

Ekonomia suspertzeko eta bide horri eusteko, funtsezkoa da giza kapitala eta haren enplegagarritasuna indartzea, pertsonen gaitasunak eta jakintzak hobetuz. Eta horretarako, lanbide-profilak eta prestakuntza gero eta gehiago zehaztu behar dira, produkzio-sektoreen benetako eskaeretara egokitzeko.

Para la recuperación económica y que se haga de forma sostenible, es esencial potenciar el capital humano y su empleabilidad mediante una mejora de sus capacidades y conocimientos. Y todo ello, ajustando, cada vez más, los perfiles profesionales y la formación para alcanzarlos a la demanda real de los sectores productivos.

Unibertsitateko Agendak eta Lanbide Heziketakoak hainbat helburu planteatzen ditu 2020rako Unibertsitatearen eta Lanbide Heziketaren esparruan, eta haien artean dago:

La agenda Universitaria y la de Formación profesional plantea diferentes objetivos para el 2020 en el ámbito Universitario y de la Formación profesional, entre los cuales está el

unibertsitateen eta enpresen arteko lankidetza eta lanbide-heziketako zentroen eta enpresen arteko lankidetza areagotzea; aldaketa-gaitasuna gehitzea; ekoizpenaren, ikaskuntzaren eta teknologiaren alorretan berrikuntzak aplikatzea, eta ikaskuntza-eredu berriak ezartzea.

del incremento de cooperación entre las Universidades y las empresas, y entre los Centros de Formación Profesional y las empresas, el aumento de la capacidad de cambio, la innovación aplicada en los campos de producción, el aprendizaje y la tecnología, así como el establecimiento de nuevos modelos de aprendizaje.

Izan ere, egoera berri honetan, bizkor galtzen da lehiarako abantaila, eta, ekoizpen-gaitasunaren ordez, produktu edo zerbitzu berriak albait arinen asmatzeko, diseinatzeko eta merkatuan jartzeko gaitasuna ezartzen ari da. Beraz, egoera honetan, garrantzitsua da berritzea eta ikaskuntza-metodoak premia berrietara egokitzea. Enpresek gero eta gehiago behar dute giza kapital jakin bat, zeinak prestakuntza tekniko egokia izan beharko duen eta -horrez gain- beste gaitasun batzuk egiaztatu beharko dituen, besteak beste, ekimenarekin, erantzukizunarekin, konpromisoarekin, autonomiarekin eta talde-lanarekin lotuak.

En efecto, ante la nueva situación donde la ventaja competitiva se pierde con rapidez y la capacidad productiva está siendo sustituida por la de idear, diseñar y poner en el mercado nuevos productos o servicios en el menor tiempo posible, es importante innovar y adaptar los modelos de aprendizaje a las nuevas necesidades. Las empresas cada vez necesitan un capital humano que, además de una buena preparación técnica, pueda acreditar otro tipo de competencias relacionadas con capacidades dirigidas a la iniciativa, la responsabilidad, el compromiso, la autonomía y el trabajo en equipo, entre otras.

Horrek guztiak ikasteko beste bide batzuk ezartzera behartzen gaitu, eta bide horien artean daude: arazoetan oinarritutako ikaskuntza, proiektuetan oinarrituriko ikaskuntza, eta, enpresetako prestakuntza gehiago eta hobeto trebatzeko.

Todo esto obliga a que se establezcan otras vías de aprendizaje, entre las que se encuentran el aprendizaje basado en problemas, el aprendizaje basado en proyectos y la adquisición de una mayor y mejor capacitación por medio de formación en empresas.

Gainera, Europa 2020 Estrategiaren barruan eta Europar Batasunaren Berme Gaztea programan adierazitako helburuekin lerrokatuta, ezartzen da, besteak beste, gazteei aukera eman behar zaiela prestakuntza-aldi bat egiteko enpresetan, lortzen duten tituluari jarraipena emateko.

Además, dentro de la estrategia Europea 2020 y alineado con los objetivos señalados en el programa de Garantía Juvenil de la Unión Europea, se establece, entre otros, que los y las jóvenes puedan desarrollar como continuidad de la titulación obtenida un periodo de formación en empresas.

Eta unibertsitateetatik eta lanbide-heziketako zentroetatik ekintzailetza sustatzea, gure gizartean duen garrantzia estrategikoari balioa emanez.

También facilitar desde las Universidades y los Centros de Formación Profesional el emprendimiento, poniendo en valor su importancia estratégica para nuestra sociedad.

Epe luzeko lana egin behar da, EAEko gizartea gero eta ekintzaileagoa izan dadin. Zehatzago esanda, gizarte ekintzaileagoa izango bada, pertsonek –banaka zein taldeka, premiek edo aukerek bultzatuta– ideiak jarduera praktiko bilakatu behar dituzte. Horrela, gizartean gero eta aintzatespen eta balio handiagoa duen ekintzailetza benetan izango da garapen ekonomikorako, kalitateko enplegurako eta gizartearen kohesiorako palanka.

Contar con una sociedad vasca cada vez más emprendedora supone un trabajo de largo plazo para que las personas, de manera individual o en colaboración, movidas por la necesidad o por la oportunidad, actúen transformando ideas en actividades prácticas, haciendo que el emprendimiento, cada vez más reconocido y valorado socialmente, se convierta en una verdadera palanca de desarrollo económico, empleo de calidad y cohesión social en nuestro entorno.

Horretarako, ezinbestekoa da EAEn kultura ekintzailea biziberritzea, autoenpleguko eta ekintzailetzako aukerak sustatzea eta enpresa berrien sorrera bideratzeko behar diren baliabideak eskaintzea.

Para ello es fundamental revitalizar la cultura emprendedora en Euskadi y ofrecer los recursos necesarios para facilitar la creación de nuevas empresas, apoyando las iniciativas de autoempleo y emprendimiento.

Horregatik, esperientzia pilotu bat egitea da Eusko Jaurlaritzaren helburua, Euskal Unibertsitate Sistema osatzen duten hiru unibertsitateekin (Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea), IKASLAN, Lanbide Heziketako Ikastetxe Publikoen Zuzendarien Elkarteekin eta HETEL Heziketa Teknikoko Gizarte Ekimeneko Ikastetxe Pribatu Kontzertatuen Elkartearen laguntzarekin. Esperientzi pilotu horrek, hezkuntza-esparrutik bizitza aktiborako trantsizioko esperientzia bat ahalbidetzen du, eta horrela unibertsitateko titulazio ofizial bat lortu duten edo 2017/2018 ikasturte akademikoan graduaren azken ikasturtean matrikulatuta dauden ikasleek eta lanbide heziketako titulu bat duten ikasleek espezializazio handiagoa eskuratuko dute, enpresetan hiruhileko bateko egonaldia eginez, jakintzak, abilezia teknikoak eta enplegu kualifikatuan aritzeko eta ekoizpen-sektore guztietan enpresen premia espezifikoei erantzuteko behar diren trebetasunak areagotzeko.

Por todo ello, es propósito del Gobierno vasco el llevar a cabo, con las tres universidades que conforman el Sistema Universitario Vasco (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Universidad de Deusto y Mondragon Unibertsitatea), las Asociaciones de Directores de Centros Públicos de Formación Profesional IKASLAN y la Asociación de Centros Privados - Concertados de Formación Profesional de Iniciativa Social HETEL, una experiencia piloto que, a la vez que posibilita una experiencia de transición del ámbito educativo al laboral, tiene por objeto la adquisición de una mayor capacitación de alumnos y alumnas que hayan obtenido una titulación oficial universitaria o que estén matriculados en el último curso de grado en el curso académico 2017/2018 y alumnos y alumnas en posesión de un título de formación profesional, a través de una estancia de tres meses en empresas con el fin de aumentar los conocimientos, las habilidades técnicas y las destrezas necesarias para ejercer un empleo cualificado y responder a las necesidades específicas de las empresas de los diversos sectores productivos.

Ondorioz, alderdiek esparru-akordio hau sinatzea erabakitzen dute, honako estipulazio hauekin:

En virtud de lo cual, las partes acuerdan suscribir el presente acuerdo marco con las siguientes

## ESTIPULAZIOAK

## ESTIPULACIONES

**LEHENENGOA.- Esparru-akordioaren xedea**

Akordio-esparru honen xedea da Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren, Hezkuntza Sailaren, Euskal Unibertsitate Sistema osatzen duten hiru unibertsitateen (Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea),. IKASLAN, Lanbide Heziketako Ikastetxe Publikoen Zuzendarien Elkarteen eta HETEL Heziketa Teknikoko Gizarte Ekimeneko Ikastetxe Pribatu Kontzertatuen Elkartearen arteko lankidetza bi programa hauek abiarazteko:

**Hezkuntza-esparrutik lan-mundurako trantsizioa**: gradu-ikasketetako eta lanbide-heziketako ikasleei lehenengo esperientzia praktikoa erraztea. Programaren arabera, ikasleek hiru hilabeteko esperientzia izango dute, hezkuntzatik lanera igarotzeko prozesuari lotuta. Programa gauzatu ahal izateko hitzarmenak sinatuko dituzte Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Enplegu eta Gazteriako sailburuordetzak, Hezkuntza Saileko Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetzak eta Lanbide-heziketako Sailburuordetzak LHko zentroekin eta Unibertsitateekin. Azken bi hauek inplementatuko dituzte programak.

Zenbatekoa: 2.000 euro gazte bakoitzeko
Onuradunak: 1.500
Aurrekontua: 3.000.000 euro

**Gazte-ekintzailetza:** LHko zentroekin eta Unibertsitateekin lankidetzan, euskal

**PRIMERA.- Objeto del acuerdo marco**

El presente acuerdo Marco tiene por objeto la colaboración entre el Departamento de Empleo y Políticas Sociales, el Departamento de Educación, las tres universidades que conforman el Sistema Universitario Vasco (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Universidad de Deusto y Mondragon Unibertsitatea), las Asociaciones de Directores de Centros Públicos de Formación Profesional IKASLAN y Asociación de Centros Privados - Concertados de Formación Profesional de iniciativa social HETEL, para la puesta en marcha de dos programas:

**Transición educativa al mundo laboral**: Facilitar una primera experiencia práctica al alumnado de estudios de grado y formación profesional. Su puesta en marcha permitirá una experiencia de 3 meses de transición del mundo educativo al mundo laboral. Su materialización se realizará mediante convenios desde el Departamento de Empleo y Políticas Sociales - Viceconsejería de Empleo y Juventud, con el Departamento de Educación – Viceconsejería de Universidades e Investigación y Viceconsejería de Formación Profesional con los Centros de FP y las Universidades, que serán quienes los implementen.

Importe: 2.000 euros persona joven
Personas beneficiadas: 1.500
Presupuesto: 3.000.000 euros

**Emprendimiento juvenil:** En colaboración con los centros de FP y Universidades y, en el marco

ekintzailetzaren estrategiaren esparruan, hitzarmenak sinatuko dira enpresa-tailerrak garatzeko eta enpresa berriak sustatzeko LHko ikastetxeetan eta unibertsitateetan bertan.

Proiektu onuradunak: 150
Aurrekontua: 1.000.000 euro

**BIGARRENA.- Programen helburuak, ezaugarriak eta baldintzak.**

**1. “*HEZKUNTZA-ESPARRUTIK LAN-MUNDURAKO TRANTSIZIOA*” PROGRAMA**

**1.1. Helburua**
Helburua da gradu-ikasketetako eta lanbide-heziketako ikasleak gehiago trebatzea, lanbide-profil jakin bateko gaitasunekin loturiko jakintza, abilezia, trebetasun eta jarrerak lor ditzaten. Horretarako baliatuko da lan esperientzia ziurtatzeko aukera hau.

**1.2. Ezaugarriak**
Lehen esperientzia praktikoa da 2016/2017 ikasturtean unibertsitateko gradu ofizial baten titulazioa lortu duten edo 2017/2018 ikasturte akademikoan ikasketa horien azken ikasturtean matrikulatuta dauden ikasleentzako, eta lanbide heziketako titulu bat duten ikasleentzako. Programaren arabera, ikasleek hiru hilabeteko esperientzia izango dute, hezkuntzatik lanera igarotzeko prozesuari lotuta.

a) Programa honek, gehienez ere, 1.500 ikasle izango ditu (750 LHn eta 750 unibertsitateetan), Eusko Jaurlaritzako Sailek, Unibertsitateek eta Lanbide-heziketako ikastetxeek adostutakoaren arabera.
b) Programan parte hartzen duen ikasle

de la estrategia vasca de emprendimiento, se firmarán convenios para el desarrollo de talleres de empresa y promoción de nuevas empresas surgidas en los propios centros educativos de FP y Universitarios.

Proyectos beneficiados: 150
Presupuesto: 1.000.000 euros

**SEGUNDA.- Objetivos, características y requisitos de los programas**

**1. PROGRAMA “*TRANSICIÓN DEL MUNDO EDUCATIVO AL LABORAL*”**

**1.1 Objetivo**
El objetivo es el logro de una mayor capacitación por parte del alumnado de estudios de grado y formación profesional, con la adquisición de conocimientos, habilidades, destrezas y actitudes relacionadas con las competencias relativas a un perfil profesional concreto por medio de esta oportunidad de acreditar una experiencia Laboral.

**1.2. Características**
Es una primera experiencia práctica para los alumnos y alumnas que hayan obtenido una titulación de grado oficial universitario en el curso 2016/2017 o que estén matriculados en el último curso de estos estudios en el curso académico 2017/2018 y alumnos y alumnas en posesión de un título de formación profesional. Su puesta en marcha permitirá una experiencia de 3 meses de transición del mundo educativo al mundo laboral.

a) El presente programa irá dirigido a un máximo de 1.500 alumnos y alumnas (750 en FP y 750 en Universidades) de acuerdo a lo que se determine entre los departamentos del Gobierno y las Universidades y Centros de Formación Profesional.
b) Cada alumno o alumna participante en el

bakoitzak 1.500 euroko konpentsazio ekonomikoa jasoko du hiru hilabeteko aldia amaitu eta gero. Era berean, hiru hilabeteko aldi hori dela-eta, programan sartzen diren ikastetxeek 500 euro jasoko dituzte ikasleko, kudeaketa-, aseguru-gastuengatik.

c) Programari atxikitako ikastetxeek proposatuko dituzte xede-enpresak, eta programan parte hartzen duten ikasleen jarraipena egingo dute.
d) Esperientzia hori egiteko, akordio bat sinatu beharko da unibertsitatearen edo lanbide-heziketako ikastetxearen eta enpresa laguntzaileen artean.
e) Programa honetan, ikasleek hiru hilabeteko egonaldia egingo dute enpresan.
f) Ikastetxearen eta enpresaren artean ezarritako programan zehazten diren lan eta jarduerak beteko dituzte ikasleek.
g) Ikasle guztiek bi tutoreren laguntza izango dute: bata, enpresen aldetik, eta bestea, ikastetxearen aldetik; enpresan prestatzeko prozesuaren jarraipena egingo dute.
h) Prestakuntza-aldia amaitu, eta enpresan prestatzeko prozesua ebaluatu eta gero, ziurtagiria emango zaio ikasleari.
i) Programan parte hartzen dutenen datuak emango zaizkio Lanbideri ebaluazioa egin ahal izateko.
j) Enplegu eta Gazteriako Sailburuordetzak, Unibertsitate eta Ikerketako Sailburuordetzak, Lanbide-heziketako Sailburuordetzak, Unibertsitateek eta Lanbide-heziketako ikastetxeek osatutako batzorde batek egingo du programaren jarraipena eta ebaluazioa.

**1.3. Baldintzak**

Programan parte hartzeko aukera izango dute

programa percibirá como compensación económica 1.500 euros a la finalización del periodo de tres meses. Asimismo, los centros docentes incluidos en el programa percibirán 500 euros por alumno o alumna en concepto de gastos de gestión, seguros… por dicho periodo de tres meses.

c) Los Centros docentes adheridos al programa propondrán las empresas de destino y realizarán el seguimiento del alumnado que participe en el programa.
d) Para la realización de esta experiencia es necesaria la firma de un acuerdo entre el Centro docente Universitario o de Formación profesional y la empresa o empresas colaboradoras.
e) La estancia del alumnado en la empresa en el marco de este programa será de tres meses.
f) El alumnado desempeñará los trabajos y actividades que se determinen en el programa establecido entre el centro docente y las empresas.
g) Todo el alumnado contará con el apoyo de dos tutores, uno por parte de la empresa y otro del centro docente, que realizarán el seguimiento del proceso de formación en la empresa.
h) A la finalización del periodo, y una vez evaluado el proceso de formación en la empresa, se expedirá al alumnado una certificación acreditativa.
i) Se facilitarán a Lanbide los datos de los participantes del programa para poder realizar la evaluación del mismo.
j) Una comisión formada por las Viceconsejerías de Empleo y Juventud, Universidades e Investigación, y Formación Profesional, junto con las Universidades y los Centros de Formación profesional, realizará el seguimiento y evaluación del presente programa.

**1.3. Requisitos**

Podrán participar en el programa los alumnos y

2016/2017 ikasturtean unibertsitateko gradu ofizial baten titulazioa lortu duten edo 2017/2018 ikasturte akademikoan ikasketa horien azken ikasturtean matrikulatuta dauden ikasleek, eta lanbide heziketako titulu bat duten ikasleek.

alumnas que hayan obtenido una titulación de grado oficial universitario en el curso 2016/2017 o que estén matriculados en el último curso de estos estudios en el curso académico 2017/2018 y alumnos y alumnas en posesión de un título de formación profesional.

## 2. "*GAZTE-EKINTZAILETZA*" PROGRAMA

### 2.1. Helburua

Helburua da ekintzailetza-kultura aktibatzea unibertsitateetako eta lanbide-heziketako ikastetxeetako ikasleen artean. Horretarako, babesa emango zaie esparru horietan sor litezkeen enpresa-ekimenei, eta enplegu berriak eragin ditzaketen autonomo berrien eta mikroenpresen ekimenen alde egingo da.

### 2.2. Ezaugarriak.

LHko zentroekin eta Unibertsitateekin lankidetzan, euskal ekintzailetzaren estrategiaren esparruan, hitzarmenak sinatuko dira enpresa-tailerrak garatzeko eta enpresa berriak sustatzeko LHko ikastetxeetan eta unibertsitateetan bertan.

1. Programara, gehienez ere, ikasleek sortutako 150 proiektu bildu ahal izango dira (75 proiektu LZn, eta 75 proiektu unibertsitateetan), Eusko Jaurlaritzako Sailek, Unibertsitateek eta Lanbide-heziketako ikastetxeek adostutakoaren arabera.
2. Proiektuko 6.600 euro jasoko ditu ikastetxeak edo entitateak eta zenbatekoaren banaketa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, Unibertsitateek eta Lanbide-heziketako ikastetxeek sinatutakoaren arabera egingo da.
3. Ikasleek programan xedatutako jarduerak egingo dituzte.

## 2. PROGRAMA "*EMPRENDIMIENTO JUVENIL*"

### 2.1 Objetivo

El objetivo es activar la cultura emprendedora entre el alumnado de las Universidades y de los Centros de Formación profesional, ofreciendo un apoyo a las iniciativas empresariales que puedan surgir en esos ámbitos, apoyando aquellas iniciativas de nuevos autónomos y microempresas que puedan generar nuevos empleos.

### 2.2. Características

En colaboración con los centros de FP y Universidades y, en el marco de la estrategia vasca de emprendimiento, se firmarán convenios para el desarrollo de talleres de empresa y promoción de nuevas empresas surgidas en los propios centros educativos de FP y Universitarios

1. El presente programa irá dirigido a 150 proyectos creados por alumnos y alumnas (75 proyectos en FP y 75 proyectos en Universidades) de acuerdo a lo que se determine entre los Departamentos del Gobierno y las Universidades y Centros de Formación Profesional.
2. El importe que recibirá el centro o la entidad designada, será de 6.600 euros por proyecto y la distribución de la cuantía se realizará en el acuerdo que se firme entre el Departamento de Educación y las Universidades y Centros de Formación Profesional.
3. El alumnado desempeñará las actividades que se determinen en el programa establecido.

4. Tutoreak izango dituzte ikasle guztiek, eta enpresan prestatzeko prozesuaren jarraipena egingo dute.
5. Prestakuntza-aldia amaitu, eta enpresan prestatzeko prozesua ebaluatu eta gero, ziurtagiria emango zaio ikasleari.
6. Programan parte hartzen dutenen datuak emango zaizkio Lanbideri ebaluazioa egin ahal izateko.
   Enplegu eta Gazteriako Sailburuordetzak, Unibertsitate eta Ikerketako Sailburuordetzak, Lanbide-heziketako Sailburuordetzak, Unibertsitateek eta Lanbide-heziketako ikastetxeek osatutako batzorde batek egingo du programaren jarraipena eta ebaluazioa.

4. Todo el alumnado contará con el apoyo de tutores, que realizarán el seguimiento del proceso de formación en la empresa.
5. A la finalización del periodo, y una vez evaluado el programa, se expedirá al alumnado una certificación acreditativa.
6. Se facilitarán a Lanbide los datos de los participantes del programa para poder realizar la evaluación del mismo.
   Una comisión formada por las Viceconsejerías de Empleo y Juventud, Universidades e Investigación, y Formación Profesional, junto con las Universidades y los Centros de Formación profesional, realizará el seguimiento y evaluación del presente programa.

**2.3. Baldintzak**

Programan parte hartzeko aukera izango dute unibertsitateko titulazio ofizial bat duten edo 2017/2018 ikasturte akademikoan graduaren azken ikasturtean matrikulatuta dauden ikasleek, eta lanbide heziketako titulu bat duten ikasleek.

**2.3. Requisitos**

Podrán participar en el programa los alumnos y alumnas en posesión de una titulación oficial universitaria o que estén matriculados en el último curso de grado en el curso académico 2017/2018 y alumnos y alumnas en posesión de un título de formación profesional.

**HIRUGARRENA.- Finantzaketa**

Behar beste neurri hartuko dira hitzarmen honen ondorioz sortzen diren gastuak egoki exekutatzeko. Eusko Jaurlaritzak hitzartutako finantzazioa bideratuko du Ikastetxe Publikoetako Zuzendarien Elkartera (IKASLAN) eta Gizarte Ekimeneko Lanbide Heziketako Ikastetxe Pribatu Kontzertatuen Elkartera (HETEL), zuzeneko diru-laguntza baten bidez, eta unibertsitateetara, indarrean dauden programa-kontratuen bidez. Finantzazioa jaso ondoren, aipatutako IKASLAN eta HETEL elkarteak, eta unibertsitateak arduratuko dira bekak kudeatzeaz.

**TERCERA.- Financiación**

Se adoptarán cuantas medidas resulten necesarias para la correcta ejecución del gasto que se derive del presente acuerdo. El Gobierno Vasco dotará de la financiación estipulada a las Asociaciones de Directores de Centros Públicos (IKASLAN) y la Asociación de Centros Privados - Concertados de Formación Profesional de iniciativa social (HETEL) a través de una subvención directa y a las Universidades, a través de los Contratos Programa vigentes. Una vez que reciban la financiación, serán las citadas asociaciones IKASLAN y HETEL y las Universidades quienes se encarguen de la gestión de las becas.

**LAUGARRENA.- Hitzarmena garatzeko jarduketak**

**CUARTA.- Actuaciones de desarrollo**

Hitzarmen hau garatzeko, indarrean dagoen arautegiaren arabera aplikatu beharreko jarduketa eta prozedurak beteko dira.

El desarrollo del presente acuerdo se materializará mediante las actuaciones y procedimientos que resulten de aplicación conforme a la normativa vigente.

**BOSGARRENA.- Indarraldia**

Esparru-akordio hau –akordio honen 8 ale izenpetu dira– 2017ko abenduaren 31 arte izango da indarrean; indarraldi hori luzatu egin daiteke, alde guztiek berariaz erabakitzen badute.

**QUINTA.- Vigencia**

Este Acuerdo Marco, del que se firman 8 ejemplares, estará vigente hasta el 31 de diciembre de 2017 y se podrá prorrogar por acuerdo expreso de las todas las partes.

Iñigo Urkullu Renteria
Eusko Jaurlaritzako lehendakaria

Miren Nekane Balluerka Lasa
UPV/EHUko errektorea

José María Guibert Uncín
Deustuko Unibertsitateko errektorea

Vicente Atxa Uribe
Mondragon Unibertsitateko errektorea

Pedro Ibáñez Dorado
IKASLAN Araba elkarteko lehendakaria

Agustín Campos Trujillo
IKASLAN Bizkaia elkarteko lehendakaria

Iosune Irazabal Ormaechea
IKASLAN Gipuzkoa elkarteko lehendakaria

Julen Elgeta Guenetxea
HETELeko presidentea